# EUSKAL KOOPERATIBISMOAREN

# BALOREAK

Por

Adrián Celaya Ulíbarri

Lección expuesta en Bilbao,
el 15 de abril de 1996,
en Salón de Actos del
Archivo Foral de Bizkaia.

## LECCION DE INGRESO

### Como Amigo de Número de la
### REAL SOCIEDAD BASCONGADA
### DE LOS AMIGOS DEL PAIS

Por

ADRIAN CELAYA ULIBARRI

## EUSKAL KOOPERATIBISMOAREN BALOREAK

### 1. Euskal Kooperatibismoa, berez baloreak daukazan mugimendua

Kooperatibismoa kanpotik aztertu dabenak harritu egin dira mugimendu honen etika eta enpresa arloko baloreen berezkotasuna ikusirik.

Berezkotasun hori, egia da, nazioarteko Kooperatibismoaren ezaugarri orokorra da. Mugimendu honek etika eta ideologia aldeko ezaugarri nabarmenak eta zehatzak daukaz, ondo baino hobeto igarteko modukoak.

Gauza bera jazoten da, jakina, euskal Kooperatibismoaren kasuan, gure enpresa-munduaren barruan zehazteko errez diran ezaugarriak daukazana.

Alde batetik, argi dago ezaugarriok nazioarteko Kooperatibismoaren ezaugarri orokorrak eurak dirana (gizabanakoari emoten jakon balorea, demokraziaren erizpidea, gizarteagazko kontu apartekoa).

Halandabe, nazioarteko Kooperatibismoaren ezaugarri orokorren ondoan, argi eta garbi esan geinke euskal Kooperatibagintzak bere pen-

tsakera garatu dauala bere aldetik[1], Kooperatiben nazioarteko ideologiarekin guztiz bat ez datorrena. Egia esan, baina, NKEk (Nazioarteko Kooperatiben Elkarteak) Rochdale-ko Oinarriak izenez ezagunak diran printzipioetan dauko jatorria, Euskal Kooperatibismoaren antzera. Dana dala, nire ustez, honeen guztiok aurretik ibili izan da euskal Kooperatibismoa, eta ondoko ezaugarri nagusietan erroturiko bere balore-moltsoa zehaztuz joan da:

- Ideologia eta teoria mailako azterketak egiterakoan, jarrera errealistagoa izatea eta dogmatismo edo formalismo gitxiago.

- Oinarrizko baloreetan (Lana eta Alkartasuna) zehaztasun handiagoa.

- Arizmendiarrieta pentsalariaren ekarriak –edo, hobeto esanda, pentsakera-joera oso batenak–, bere nortasuna eta inspirazio-iturriak daukazanak.

## 2. Jose Maria Arizmendiarrieta, euskal Kooperatiben pentsakeraren euskarri

Arizmendiarrieta –edo, hobeto esanda, "Arizmendiarrietaren pentsakera"– ez da Arrasaten garrantzibako edo pisubakoa izan[2].

---

(1) Ez dogu ahaztu behar euskal Kooperatibismoaren barruan guztiz desbardi nak diran kulturak dagozala. Hauxe, berez, egoera baikortzat hartu geinke. Mugemenduon ideologia- eta kultura-erroak, jakina, zeharo desbardinak dira. Laburbilduz, oraingo MCC "Arizmendiarrietaren kulturan" ókristau pertsonalismo komunitarioanó, Lan-Sozietateak sindikatuen kulturan eta ikastolak komunitarismo euskalzalean oinarrituten dirala esan geinke. Azkenik, oraingo Kooperatiben Federazioak (EKKN), Nazioarteko Kooperatiben Elkartearen inguruko nazioarteko Kooperatibismotik askoz hurrago dagoz.

Kontuan hartu behar dogu aitaturiko elakrketa edo taldeen barruan be kultura desbardineak agertuten dirala. MCC eta ASLEren moduko erakundeak askoz be hurrago kokatzen dira.

Honek guztiak, euskal Kooperatibismoaren kultura-aberastasuna adierazten dau. Etorkizuneko aldaketen aurrean Kooperatibismoak behar dauan malgutasuna eta bihar etziko erronka desbardinei egokituteko behar dauan gaitasunaren oinarria da kultura-aberastasun hau.

(2) Ez geunke ahaztu behar J Azurmendik esan eban legez (El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarrieta, Arrasate, 1984, 23. or.), "Arizmendiarrietaren pentsakera ez da[la] haste, ez amaituten be, Kooperatibakaz, nahiz eta euren emaitza praktiko funtsezkoenak alderdi honetakoak izan. kooperatibista baino lehenago, pertsonalista izan da Arizmendiarrieta; enpresari buruzko bere ikusmoldearen aurretik, gizabanakoari buruz daukan filosofia jarri behar dogu".

Funtsezkoa izan da, barriz, Kooperatiben Taldeonen jaiotzan eta beronen bizi-garapenean zehar[3].

Egia esan, lan honen helburua ez da Arizmendiarrietaren pentsakeraren edukina eta garrantzia sakon aztertzea. Beste inork eginda eta beteta dauka behar hori. Honeen artean Joxe AZURMENDIren *El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarrieta* da azpimarragarriena.

Hau guztiau kontuan hartuta, euskal gizartean Arizmendiarrietaren pentsakeraren lekua zein izan dan ikusteko lagungarriak diran kontzeptuak baino ez doguz aitatu behar. Kooperatiben eta Arizmendiarrietaren beraren historia baino gehiago, herri honen gaurko egoerari eta etorkizunari egingo deutsagu jaramon.

Arrasatera Arizmendiarrieta zendu jakun ostean heldu ginanontzako[4], beste batzuren ahoz edo idatziz bera nor izan dan jakitea benetako aurkikuntza harrigarria izan da.

Egia esan, Arrasateko Kooperatiben Entsegu edo Saiakuntzaren historia ezagututen ez dabenei, bitxia begitanduko jake enpresa-talde baten sortzailea edo ideologoa abadea izan zana jakitea. Horrexegaitik, Arizmendiarrietari buruz egiten diran aitamenak lekuz kanpoko emoten dabe hasieran edo, gitxienez, enpresa-baloreetatik kanpo dagoan zeozer.

Benetan jazoten dana, baina, zeharo desbardina da. Geroago esango dogunez, etikaren, humanismoaren, gizabidearen eta enpresaren arteko lotura ez da benetan agertzen dana bakarrik, baizik eta berebiziko osagai eragile eta bizkortzailea, ez bakarrik gizarte arloko kontzientziaren eta gizakiaren garapenerako, enpresaren jarduera berarentzako be bada.

---

(3) Liburuak (La economía social. Una nueva forma de vida para el país Vasco, 1990, 383. or.) hemengo hau esaten deusku gai honi buruz:

"Arrasateko entsegu edo Esperientzia zeharo loturik dago Jose Maria Arizmendiarrietagaz, Arrasateko San Juan Bateatzailearen Eleizako parroko-laguna.

Gizarte arloko dotrina kristaua ondo ezagututa, pragmatismo handia eta lan editeko gaitasun agerikoa ebazan gizona genduan Arizmendiarrieta. Bere herria guzitz hondatuta aurkitu eban, bai politika-, gizarte- zein ekonomia-arloetan, baita etika-arloan. Bere eginkizuna erabagikorra izan zan gerraondoko Kooperatiben Entseguan. 1941an, Arrasatera heldu zan urtetik eta gora, 1976.ean hil zan arte, Talde honen eredurik argiena izanik".

(4) Zuzen-zuzenean ezagutu ez dodanez, gogor egiten jat "On Jose maria" deitzea berari, MCCren sortzaileek eurek egiten daben moduan.

Arizmendiarrietak ez eban idatzi luzerik egin eta bere asmoak eta ideiak be ez ebazan arau jakin bateri jarraituz taiutu. Ez zan hori, ganera, bere helburua. Halandabe, gure herriaren kontzientzia kolektibotik honen funtsezko osagaietarik sortzaileenetariko batzuk hartu eta agerian jartzen jakin eban, herri hau –Kooperatibismoaren bitartez– ekonomia eta gizartearen garapenaren bidetik zuzenduteko asmoz.

Gure arteko "jakintsu" batzurentzat harrigarria dan arren, Arizmendiarrieta, nire ustez, mende honetako euskal pentsalari haundinetakoa dogu.

Bene-benetan ez eban filosofia-saiorik egin eta ez eban bere eritzi politikorik emon, bere burua "intelektual"tzat euki leiken edonoren antzean. Nire eritziz, hortik haragoko maila baten egoan Arizmendiarrieta. Ezaugarri zehatzak daukazan gizarte-eredua zehaztea ez zan bere helburua. Etorkizuneko balizko gizarte utopikoa zelan eregi be ez eban zehaztasun handiz azaldu.

Batez be gizakiaren ardura eukan, gizakiaren jarrerarena eta berau txertatuta dagoan gizartearen garapenerako emon beharreko urrats txikiena. Urrats txikiok dira-eta etorkizuna benetan eregiten dabenak. Horretara, aparteko indar eragilea daukan balore-egitura zehaztu eban Arizmendiarrietak.

Gerotxoago esango dogunez, Arizmendiarrietaren pentsakera hausnartu eta beronei onura ateratea be, gaurko euskal gizarteak oraindino eskueran daukan erronka handia da.

## 3. Euskal Kooperatibismoaren ideologiaren kokapena eta baloreak

Zelan klasifikatu edo sailkatu geinke Arizmendiarrietaren pentsakera eta, orokorrean, euskal Kooperatibismoaren pentsakera?

Arizmendiarrieta ideologia edo politika arloetako oinarrizko mugimenduetan kokatu gura izan dabenek, ez dabe kontuan hartu bere ideologia ez zala "politiko" hutsa, ez egoala politika-ekintza hutsera zuzenduta, gizakiarentzako eta Administraziotik kanpoko gizarte-ekintzetarako zan gehiago.

Arizmendiarrietaren eritziak Pertsonalismora, Sozialismo Utopikora, Kristau Demokraziara, teoria liberal batzuetara –bai eta, egile

batzuren arabera, Federalismo anarkistaren korronte batzuetara behurreratzen dabezan[5] osagai batzuk agertu leikiez, jakina. Halandabe, ekintzetan oinarrituten zan Arizmendiarrietaren pentsakera, langileen gogoak biztu eta euren beharrrizanak asetuteko asmoz sorturiko alkarteetan antolatzean, eta asebeteori Estatuaren ekimenaren esku itxi barik. Eta ez geunke ahaztu behar gaur egungo ideologien arteko eztabaidaren helburu nagusia Estatuaren ekintza bera izan dala. Gizakiari emoten jako lehentasuna Arizmendiarrietarenean, beraz, ez ekintza politikoari.

Hauxe da, zehatz eta mehatz, "ideologia" berbea ahaztu eta "pentsakera" berba erabiltea komenigarri egiten dauana hemen.

Elhuyar Elkarteak eginbarri dauan *Euskal Hiztegi Modernoak* dinoenez, hauxe da ideologia: "Garai, gizarte, talde, klase edo pertsona baten ideia-sistema, nolabaiteko doktrina filosofikoaren atala osatzen dutena eta banakoaren nahiz taldearen jokabidea baldintzatzen duena".

Beste alde batetik, *Lur Hiztegi Enziklopedikoa*ren arabera: "Garai, gizarte, talde edo klase baten ideia eta usteen multzoa" litzateke ideologia.

Hau guztiau kontuan hartuz, zera esan geinke: Gramatikaren ikuspuntutik benetako ideologiaren aurrean gagozala esan ahal izateko, beharrezko sakontasun, ugaritasun eta koherentzia-osagaiak batuten dauzala Arizmendiarrietaren pentsakerak.

Halandabe, "ideologia" kontzeptuaren ohiko esangurea "politika-ideologia"ri lotuten jako. Honetara, "berezko zehaztapen baten bidez gizarte eta politika arloko antolakuntzarako aukerak aurkezteko asmoa dauan ideia-multzotzat" hartu geinke "ideologia".

---

(5) Egia esan, Arizmendiarrietaren ideologiak hartuemon jakin batzuk euki leikez ideologia anarkistaren joera batzuekaz –bere gizarte-alderdietan, ez edukin politikoa daukenetan–. Zehatz-mehatz, askatasun osoz eraturiko langileen alkarte edo bazkunetan –bata bestearekin ere euren borondatez alkarturikoak– sustraituriko gizartearen alde agertzen ziranak ("Federalismoa", "Kooperatiben Federalismoagaz" hartuemon ardiak dauzanak). Mugimenduok alkartasunaren oinarri argia be badaukiela esan geinke argi eta garbi, nahita Arizmendiarrietaren erro kristau sakonetatik urrun egon.

"Federalismo kristaua" izan leiteke Arizmendiarrietaren ideologia berba baten zehazteko esapidea. Hori bai, Arizmendiarrietaren pentsakera ideologikoak daukan pisu txikia bere ezaugarri funtsezkoa dala ahaztu barik. Epe laburreko ekintza da garrantzizkoena, gizakiak kontzientzia hartu dagian eta bere burua antolatzeko gai izan daiten.

Esangura honegaz, argi dago Arizmendiarrietaren pentsakera ez dala ideologia. Alderantziz, Arrasatera heltzen diranak zurtz eginda geldituten dira Arizmendiarrietaren pentsakerak alde batetik eta politika-ideologia desbardinek bestaldetik dauken alkargarritasuna edo bateragarritasuna ikusiaz. Horrek zeharo erreztu dau Iñaki Gorroñok aitaturiko alkarrenganako begirune-jarrera hori: "Arrasaten, lantegiaren atean ixten da bakotxaren politika-jarrera".

## 4. Ideologia eta estatua Arizmendiarrietaren pentsakeran

Goian aitatu dogunez, Kooperatiben baloreak bat etorri leitekez politika-ideologia gehienakaz. Ganera, ideologion aurrean "harro" edo agertuten da Kooperatibismoa, eta harrotasun hori jatorri jakinekoa da.

Politika arloko ideologia guztiek Estatuaren ekintzari buruzko eztabaida –Administrazioa orokorrean– dauke helburu. Honen ekintzak askatasuna emoten deutso Kooperatibismoari errealitatea aldatzeko funtsezkoa dan ekintza-esparruan: gizartea bera. Politikagileek erabagi dagiela Estatua zelan moldatu behar dan, bien bitartean guk gizartea bera aldatzen egingo dogu lan.

Egia esan oso gatxa da euskal kooperatibisten idatzien artean –eta, modu berezian, Arizmendiarrieta beraren idatzietan– Estatuaren Administrazioari edo Arduralaritzari zein politika arloko ekintzari buruzko aholkuak edo eritziak aurkitzea.

Jarrera honetan, jakina, bakotxaren erantzunkizunak besteren lepo ez ixteko asmo finkoa dago ganera. Herri honen garapenaren aurrean daukaguzan betebeharrak hiritar guztiok onartu behar doguz. Errezegi da Estatuari gure arazo guztien konponketa esakatutea.

Halandabe, Kooperatibistek ez dabe zehaztu –maila abstraktuan behintzat– Administrazioaren edo Arduralaritzaren jarduera, batetik, eta ekimen pribatuarena, bestetik, zeintzuk diran edo zeintzuk izan behar leuken bataren eta bestearen jarduera-esparruak.

Nondik eta nora zuhurtasun hori? Ba esparu bi horreek, alkarregazko ekimen komunitaroaren bitartez aldagarriak diralako eta, zeharo, euren betebeharrak asetuteko gizakiek dauken zaitasunaren arabera aldatu egingo diralako, bai Administrazioaren esparrua, bai eta Gizartearena.

Gorago esan danez, Estatuak edo Administrazioak zelan jokatu behar dauan eta, eztabaida horretatik kanpo gelditu da Kooperatibismoa. Ganera, Estatuak zelako jarduerak berenganatu behar dauzan eta zelakoak ez dauzan bereak egin behar, ideologia arloko erizpideen arabera zehaztutea be alde batera itxi dau honek.

Alde horretatik, guztiz argia izan da Kooperatibismoaren jarrera: elitismorik ate dagozan alkartasunezko erizpideen arabera gizakion beharrizanak konponduteko asmoz ekimen kooperatiboak sortuteko behar diran ahalegin guztiak egin behar doguz kooperatibistok.

Horixe da gizartearen beharrizanak bere kabuz beteteko gizakiak daukan bidea, bai eta gizarte-aurrerapen egonkorrak, iraunkorrak eta ekonomia eta gizarte arloko eraginkortasunagaz alkargarriak izan daitezan bidea be.

## 5. Estatuaren ekintzaren ordezkotasuna

Hiritarrok alkartasunean gure burua antolatzea da Arizmendiarrietaren pentsakeraren helburu funtsezkoena, bai gure bizitza-baldintzak bai eta gizarte-, kultura- eta ekonomia-ongizatea be hobetuteko asmoz.

Hiritarrok geure burua antolatuteko lortuten dogun gaitasunaren arabera izango da beharrezko Administrazioaren edo Arduralaritzaren ekimena.

Hau dana, jakina, Estatuaren ekimenaren "ordezkotasuna"ren kontzeptuagaz dago lotuta. Dakigunez, "ordezkotasun"-erizpide hau ez dago onartuta, orokorrean, ezkerreko ideologo sozialisten artean.

Halandabe, Kooperatibismoaren kasuan, hauxe azpimarratu behar geunke: ez gabilz Estatuaren ekimenaren ordezkotasuna babestuten edozein moetatako ekimen pribatuaren aurrean. Elitista ez dan alkartasunezko ekimen pribatuarekiko ordezkotasunaz dihardugu zehatz.

Helburua Gizartea bera sendotutea da, ekintza komunitarioaren bitartez, hemengo asmo biokaz:

- Estatuaren ekimen burokratikoa murriztutea (honen kudeaketa-eraginkortasuna badaezpadakoa izanik, zalantzan jartzen da-eta).

• Izatez elitista dan ekimen pribatua be murriztutea, gitxi batzuren onura pribatuaren helburuagaz eta beste guztien parte hartzearen aldekoa ez dan jarrera geldiak lagunduta, bai ekonomia-, gizarte-, kultura- edota hezkuntza-arloan.

## 6. Gizakia eta Alkartasuna

Goian esan danez, Kooperatibismoaren baloreek politika eta arduralaritza arloetako ekintzak aztertzea albo batera ixten dabe, euron helburua gizakiarengana berarengana zuzenduteko asmoz.

Halandabe, esanikoaren arabera, gizakiarengana zuzendu dan jarrera hori ez da bape berekoia, filosofia pertsonalista batzukaz jazoten dan legez. Alderantziz, alkartasunaren kontzeptuan errotzen da zeharo.

Honetara, Arizmendiarrietaren filosofiaren zutabeak ondokook dira: Gizakia, batetik, eta Alkartasuna, bestetik.

Horrek guztiok Mounierren "Alkarrenganako Pertsonalismoa" eta "Pertsonalismo Komunitarioa"rengandik baztertu egiten dabe Arizmendiarrietaren pentsakera[6].

Halandabe, beste pentsalari pertsonalista guztiek ez daukezan ezaugarriak be badaukaz Arizmendiarrietaren pentsakerak. Besteak beste, Kooperatiben esparruan eragiten dan, bai gizabanakoaren mailan bai

---

(6) Azurmendik (ait., 24. or.), Maritain eta Mounierren pentsakera pertsonalistaren eta Arizmendiarrietaren arteko hartu-emonak aitatu eta gero, zera dinosku:

> "Arizmendiarrietak ez bezala, baina, Ekonomia gidatuteko oinarrizko erizpide barriak eskatu egin dabez egile horreek, baina erizpideok zehaztu barik dagoz (bai, neurri baten Mounierrean ostean). Arizmendiarrietaren helburua ekonomia pertsonalistaren oinarri-erizpideak garatzea da. Helburu hori lortuteko asmoz, Kooperatiben sozialismoaren tradiziora zuzenduko da batez be, nahita horra bakar-bakarrik ez mugatu".

Zera be aitatuten dau Azurmendik: Maritain eta Mounier filosofia-mailan gelditurn dira, batez be, eta Maritainel "kapitalismoaren kitapen materiala eta morala heldu arte edo, atzeratu egiten dau ordena edo araubide pertsonalistaren ezarpena, antza". "Arizmendiarrietaretzat ekonomia-arloko ekintzak kapitalismoa desagertuazo gura ez dauan ezkero, beronentzako lantresna dan ezkero, alderdi pertsonalista gauzatuko dauan eredua garatu eban, esparru mugatu baten barruan, kapitalismoaren barruan eta beronen aurka be, berau historian desagertu daiten itxaron barik".

Azkenik (25. or.): "Aitaturiko oinarrizko erizpide orokor horreen garapenari eta zehaztapenari buruz" Mounierren ikusian Arizmendiarrietak lorturiko aurrerapenak markatzen dauz Azurmendik, etam era berezian, "langileek autogestiorako dauken gaitasunean eta hortik datorren edozertan daukan konfiantzaz".

gizartearen mailan be, benetan bultzatzaile dan "zertze" edo "errealizazioa" lortuteko tresna legez beharrak edo lanak Arizmendiarrietarenean daukan balioa, berebizikoa eta etenik bako ekina.

## 7. Ideologia-iturririk gertuenak

Bai Arizmendiarrietaren pentsakera, bai eta gaurko MCCren sustatzaileenaren ideologia-iturri gertuenak bilatu behar izatekotan, Eliza Katolikoaren gizarte-dotrinean bilatu behar geunkez, zalantza barik[7].

Zehatz-mehatz, Arizmendiarrietak berak jaso egin dauzan lehenengoko eraginen artea, ondokoak aipatu geinkez: 30ko hamarkadako abade edo apaiz abertzaleek ("apaiz zabaltzaile edo propagandistak") garatu eben Elizaren gizarte-dotrina bera alde batetik, eta gerra aurreko ELA sindikatuaren pentsalarien teorizazio kooperatiboa beste alde batetik[8].

---

(7) Halandabe, hasiera-hasieratik urrundu egin zan Arizmendiarrieta Elizaren gizarte-doktrina "ofizialetik". Azurmendik (ait., 89) esan ebanez, "hasieratik, gizarte-doktrina kristaua eskasa irudituko jako eta, batez be, 'eskolastikoegia' eta abstraktua. Ideiazko 'olimpotik' egiazko gertakarien 'arruntasunera' jaitsi behar dala esango dau geroxeago. Jaitsiera hontan, gizarte-dotrina kristaua baino lehenago, beste motako laguntzak behar izan dauz".

(8) J.Azurmendi eta I. Olabarri bat datoz be eragin hurrekoena "apaiz 'propagandistei' eta ELAren beste teorikoei" egokituz (Policarpo de Larrañaga, Alberto de Onaindia, Jose M. Ariztimuño "Aitzol").

Honeen ustez, biziro bizi eban Arizmendiarrietak, gerra aurrean, euskal sindikalismoaren gero eta kooperatiba-ideologizazio sakonagoa.

Gerra aurreko ELAn Kooperatibismoak lortu eban garrantzia argi eta garbi uzteko, ikusi daigun 1933ko Gasteizko Kongresuan onartu egin zan Kooperatibismoari buruzko ELAren egitasmoa:

1º. Euskal Langileen Elkarketa bat dagoen herri guztietan, Kontsumo-Kooperatibak eratzea.

2º. Euskal Kontsumo-Kooperatiben Herrialde Federazioak eratzea, erosgaiak -merkeago erosteko asmoz- kopuru handietan erosiz.

3º. Federaturiko Kooperatiba guztiei behar dabezen banka-zerbitzuak hornitu dagiezan Mailegu-Kooperaiba eratzea.

4º. Mailegu-Kooperatibaren barruan, Aurrezko Kutxa sortzea, aurrezki txikiak batu eta bideratuteko asmoz.

5º. Industria-, Nekazaritza- eta Arrantza-arloko Produkzio Kooperatibak sortu, eta hauek eta Kontsumo-Kooperatiben Herrialde-Federazioen artean beharrezkoa dan hartu-emona sendotu, hoien salgaiak Euzkadiren barruan erosiak izateko. Horrela, bitartekariak desagertuz, aurrezki nabariak lortuko dabez Produkzio eta Kontsumo-Kooperatibek.

6º. Produkzio-Kooperatibak eta Mailegu-Kooperatibaren artean be, behar dan harremana sendotu. Horrela, lehengaien erosketa erraztuko jake Produkzio-Kooperatibei eta, bestaldetik, egindako produkzioaren bilketak Produkzio-Kooperatiben ekonomi-bilakaera oztopatu egiten dauanean, beharko dabezan aurrerapenak egingo deutsez.

7º. ELAkideek osaturiko edozein moetatako Kooperatiba guztien jardueraren egokitasuna zaindu eta kontrolatzeko asmoz, Batzorde berezi bat izendatzea. Berez zein ordezkoen bidez eta Konfederazioaren Batzordearen agindupean bideratuko dau bere jarduera."

Halandabe, Arizmendiarrietaren pentsakerak eukan izaera zabala eta ez dogmatikoak zeharo erraztu egin eban moeta askotako ideien eragina. Horrela, pentsalari desbardinen proposamen eta burutapen baliogarriak onartzea bideratu zan[9].

Adibide legez, *Alf*aren ereduak –eta, zeharo, Toribio Etxeberriaren nortasunak berak– eragin zuzena edo izan eban gaurko MCCren sortzaileen artean[10]. Halandabe, Arizmendiarrietaren pentsakeraren izaera zabalaren aztarren bat baino ez da eragin hori[11].

Azkenik, Ignacio Olabarrigaz bat etorriz, kristau humanismoaren parean, edo honen zehaztasun legez, onartu behar dogu be Arrasateko Experientziaren jatorrian egon zan ideologiaren eragin zuzenena gerraurreko ELAren sindikalismoa –gizarte-ekimen kristauari lotu-lotua– izan zala[12].

---

(9) J. Azurmendiren iritziz (aip., 23) "Arizmendiarrietaren iturriak ondoko lau sailotan sailkatu daitekez: a) gizarte-dotrina kristaua, 2) pentsalari pertsonalistak, Maritain eta Mounier batez be, 3) euskal tradizio soziala eta, honen barru, "apaiz propagandisten" tradizio kristau-soziala alde batetik, eta bestetik, UGT eta sozialistena -batez be "sozialismo eibartarra" delakoarena-bestaldetik, eta 4) Kooperatibismoaren klasikoak (P. Lambert, etab.)".

(10) MCCren jatorrian Alfaren ereduak izan zuen eraginaz, J. Azurmendi eta I. Olabarri bat datoz hauen arteko lehenak dinoena onartzen:

> "Ezin dira ukatu zeharkako eragin batzuk, nahiz eta apur bat ilun gelditu: Arizmendiarrietak ez dau inoz izkutatu Toribio Etxebarriaren nortasunari gordetzen eutsan mirespena. Halandabe, guztiz argi itxi dau be Arrasateko entsegua edo esperientzia ez zala hasi aurreko beste eredu bat imitatu edo jarraitu gurean, enpresaren berezko eredu bat bilatuz baino".

(11) Arizmendiarrietaren bizitza aztertu egin dabenek behin eta berriz aitatuten dabe bere Liburutegiaren iturrien aniztasuna. Honen barruan, bai tradiziozko pentsalari katolikoak eta Elizaren gizarte-dotrina, bai eta textu marxistak, eta, orokorrean, mota guztietako iturri ideologikoak agertuten ziran.

(12) Honi buruz, ondokoa diñosku Ignacio Olabarrik berak ("Tradiciones cooperativas vascas:, Euskal Herria, Historia eta Gizartea, Euskadiko Kutxa, 307. or.):

> "Arrasateko Kooperatiben Entsegu edo Esperientzia ... ez zan hutsetik sortu eta, nahiz eta berria eta orijinala izan gauza askotan, ulergaitza izaten jaku aurreko experientzia guztiak kontutan hartu barik ... (honeen artean, Euskal Herriko tradiziozko izpiritu kooperatiboaren aztarrenak, Arizmendiarrietak argi eta garbi lotu ebazala Arrasateko Esperientziagaz) eta, batez be, ELAkoen egitasmo kooperatibo garrantzitsua".

Euskal tradizio kooperatiben laburpen interesgarria -eta, zeharo, gerra aurreko euskal Kooperatibismoarena- eskuratu nahi dabenek, ik. I. Olabarriren artikulu hori bera, 298 eta urr. orr.

## 8. Baloreak gure kooperatibismoaren pentsakeran

Esan dogunez, Arizmendiarrietaren pentsakera kooperatiboa "ideologiatzat" hartutea ez da bape erraza[13]. Ez dau kooperatibizaturiko mundu baten helburua asmatzen, "oraintxe bertoko ekintza" baino, epe laburreko helburuakaz, berez zentzua daukana. Pentsakera honen justifikazioa ez dago kooperatibizaturiko geroko gizarte baten, egunetik egunera gizon barria eta gizarte barria egituratzen dabezan ekintzetan baino. Horretarako, aldibereko Kooperatibismoaren hedapen eta garapena –edo, orokorrean, antolakuntza komunitarioena– ez da derrigorrezkoa[14].

Azkenik, baloreak, eta ez azken helburuak, dira Arizmendiarrietaren ideologia osatzen dabenak: Gizakiaren garrantzia batez be, baina gizaeta kristau-erizpide baten arabera eraturiko gizakia. Zer moetatako gizakia da hori? Alkartasunezko baloreetan sustraituriko antolakuntza komunitarioari zuzenduriko ekimen iraunkor batez –lana eta alkartasunaren bidez– pertsona eta gizarte mailako bere errealizazioaren bitartez eraturiko gizakia[15].

Tamalez, Arizmendiarrietaren pentsakerak ez dau orain arte oihartzun handirik izan Euskal Herrian, Kooperatiben ingurunetik kanpo, nahiz eta berari buruz egin diran ikerketak asko eta asko izan, batez be Espainiako Estatutik kanpo[16].

---

(13) J. Azurmendik (ait., 24) esan dauanez, "Arizmendiarrietaren pentsakerak dauan indarra eta bizkortasuna ez datza beraren orijinaltasunean, laburbiltzeko bere gaitasuna eta bere esangura pragmatikoan baino, utopiari uko egin barik Bere materialak horren harrobi ezbardinetatik ateraz, guztiz sendoa eta koherentea zan berarizko pentsaera-egitura eraikitzen lortu eban. Pertsonalismoa eta Kooperatibagintza, filosofia eta ekonomia, ikasketa eta beharraren arteko harmoniazko sitnesia egituratuten jakin eban". Azurmendik dinoen legez, "sintesi hori ... Arizmendiarrietaren pentsaerak daukan berarizkoena da".

(14) Azurmendik dinoan legez (ait., 15/16) "Mounierendako legez ... Arizmendiarrietarendako ere jazoerak dira bere 'barruko irakaslea". Bere inguruko munduagaz zuzenki lotuta garatzen da bere pentsaera. Mundu hori eraldatzen saiatuten da eta, aldi berean, mundu horrek bera eraldatzen uzten dau be".

(15) Zeharo, ondokoa azpimarratuten dau Azurmendik (ait., 25):

"Zera esan behar dogu bere ideiei buruz: Batez be, atsedenbako bilatzea adierazten dabela ... Garapen prozesu honen sakonean, hasieran egozan legez jarraituko dabe ondoko bi osagai funtsezkook: pertsonarengan daukan fedea eta langile edo beharginarengan daukon konfidantza mugagabea. Horrela laburbildu daikegu, beharbada, bere pentsaeraren historia: gizakiarendako lana edo beharrak daukon adierazgarritasunean etengabeko sakontze-lana".

(16) Zera dinosku Azurmendik (aip, 25): "Hainbestetan legez, oraingoan be, ezagupena, inguratze handi baten ondoren, atzerritik edo dator".

Halandabe, sustraituriko erreferentzi etikoen beharrizan handia dauko geuere gizarteak. Eta Kooperatiben pentsakerak laguntza handia emon leikigu erreferentzi horreek eskuratzeko. Gizartea biztu eta mugitzeko Arizmendiarrietak eukan gaitasuna hedatu eta aprobetxatzeko –guztion geure ekimen kolektiboari bultzakada eta bizi barria emoteko asmoz– bideratuten daben osagai edo elementu objetiboak egon badagoz[17].

## 9. Etika eta enpresa euskal Kooperatibismoan

Lehen esan dogunez, MCC kanpotik aztertu dabenentzako hauxe da gairik harrigarrienetarikoa: etika eta erlijioaren baloreen eta enpresa jardueraren arteko hartu-emon sakona. Hauxe da be –ekonomi bizitzaren ikuspegitik– Kooperatibismoaren alderdirik iraultzaileena eta, zalantza barik, hauxe da be Kooperatibismoak euskal gizarteari egin leion ekarpen haundienetariko bat.

Egiz, enpresa-jardueraren eta norbanakoak irabazteko daukan gogoaren arteko lotura estua, guztiz kaltegarria dan burubide hori, sakon errotu egin da geure gizartean akenenko hamarkadotan, geure ekonomia-beherakadan edo dekadentzian faktore funtsezkoa izanik.

Burubide honen ondorioz, alde batetik, enpresa-egileak aukeratzeko erizpide ezkorra garatu egin da, giza-balore murritzak eta irabazteko gehiegizko nahikeria daukezan pertsonak enpresa jarduerara heltzea erraztuz. Eta, beste alde batetik, azkeneko belaunaldietako gazteak enpresatik urrundu egin dauz. Gazteok, mesprezu apur batez ikusi egin dabe enpresa jarduera, norbanako irabaziak eskuratzeko jarduera huts legez eta helburu etikobakotzat hartuz.

Gizarte jarrera honek ekonomi jarduera ahuldu edo makaltzeko izan dauan –eta dauan– eragina nabaria da. Giza multzo zabalak aberastasu-

(17) Azurmendik (aip., 25/26) diñoenez: "Euzkadiren berezko ikuspegitik, zera uste dogu: Arizmendiarrietak lanaren gaiari buruz orain arte eginiko azterketa serioena ekarri deutso herri honi. Barandiaran eta Lekuonaren parean, bere gaztaroaren maixuak, Arizmendiarrietari jagoko, hoien beharrezko osagai legez, ohorezko lekua, Euskal Herriari Historia arloko bere ezagupen eta errealizazio lortuteko behar ziran ideak zabaltzen ahalegindu diranen arten. Maixu asko behar izan dauz herri honek, bere historia, bere hizkuntza, bere tradizioak, bere literatura, herri bezalako bere dignitatea berreskuratzeko. Inork ez dau argi eta garbi utzi, Arizmendiarrietak egin dauan legez, azken finean, herri baten historia bere lana edo beharraren oinarri apalean datzala".

na sortzean parte hartzetik urrundu egin dira, herri honen ekonomia-garapenerako ahalmena modu larrian murriztuz[18].

Nahiz eta beste batzuk holan uste izan, etikaren eta enpresaren arteko banaketa hori ez da gaur egoneko industri gizartearen ondorio zuzena. Alderantziz, guztiz atzerakoia eta, gura badozue, "hirugarren munduko" pentsakera adierazten dauan egoera da, edozein herriren gizartea eta garapenerako ahalmena zeharo ahulduten dauana.

Halandabe, nire ustez, etika arazo hau ez da Kooperatibismoan jazo, bertan enpresa sustapenaren eta gizarte sustapenaren artean dagoen lotura –alkartasunaren kontzeptuaren bidez– oso handia da-ta[19].

80ko hamarkadan horrenbeste oihartzun euki eban epe laburrera etekinen bila joateko eregi zan enpresa-kultura hori gaindituta dago. Gure enpresa-sarea berrindartuteko beharrizanen ondorioz, eta gizaki guztiek jaiotzez dauken alkartasun-sentimentua be kontuan hartuz, derrigorrezko egiten jaku urtenbideak topatea. Horretarako, benetan bizgarriak diran alkartasunezko, gizarte eta enpresa arloko egitasmoen bitartez belaunaldi barrien errealizazioa bilatu behar dogu, ahalik eta arinen.

Honetara, berebiziko baliabidea izan daiteke Kooperatibismoa geure gazteek etika eta emonkortasunaren aldetik euren ahalmen eta gaitasuna garatu dagien. Norberaren garapen hori, jakina, herri honen ekonomia-garapenaren alde eta alkartasunezko ahaleginean eta lanaren etikan oinarritutako bizitzaren kontzepzio moralean barruan lorturik.

Espekulazioaren atzetik doan edo neurrigabeko norbanakoaren irabazi nahia adierazten dauan enpresa kulturaren eta Kooperatibismoaren artean dagoen konponezina nabaria da, edonork egiaztatu leiken

---

(18) Adibide legez, Jose Mª Vizcaino, ("La empresa y el empresario vascos", "Pasado, presente y futuro de la Economía Vasca", RSBAP, 1984) euskal enpresariarentzako guztiz gatxa zan soziologia, politika- eta psikologia-arloko egoera adierazten eban. Honen ondorioz, gizarte egileei zera exijitzen eutsien: "oinarrizko eta funtsezko gai legez". 'Biharko enpresaria nor izango dan erronkari lehen bait lehen erantzuteko" arazoari aurre egitea.

(19) Euskal Herrian enpresa munduan bizi izan dan etsipenaren aurrean, Pedro Luis Uriartek ("Perspectivas de la economía vasca:", "Pasado, presente y futuro de la Economía Vasca", RSBAP, 1984, 157), "Euskal Herrian dan-dana ez doa txarto", esaeraren adibide bezala ikusten eban MCC.

moduan. Kooperatiben enpresa-jarduera aberastasuna eta lanpostuen sortzailea da izan. Beraz, helburu etikoak ez daukazan ekonomia-garapenagaz konpontzeko gatxa.

Kontuan hartu behar dogu belaunaldi barriek dauken lanbide-gaitasuna eta euren eskubideak eskatzeko dauken joera be oso haundiak dirana. Beste alde batetik, egiturak berak dakarran langabeziaren kopuruak oso handia izaten jarraituten dau. Hori dala-ta, Kooperatiba erako egitasmo barriak sortuteko egoera guztiz egokiaren aurrean gagoz. Horretarako, jakina, eskubideak eskatzeko joera hori ahaleginaren eta lan egiteko gaitasunaren azpian gelditu eta Arizmendiarrietaren pentsakeran horren argi dagoen norbanako betebeharren ezaguera eta kontzientzia hori lortu behar da. Eta hori dana lortuteko, behar dan hezkuntz arloko ahalegina derrigorrez egin behar dogu.

Bakoitzaren eskubide eta betebeharren onarpenean, duintasun eta erantzukizunaren arteko lotura horretan datza, zeharo, Kooperatibismoaren sustraia.

## 10. Ideologia eta enpresa euskal Kooperatibismoan

Entzun ohi diran eritzien aurka, ideologizazioa, esangura zabalean hartuta, ez da benetako oztopoa enpresa arrakastatsua izan daiten. Alderantziz, edozein ekonomia-egiturak arrakasta lortuteko faktore funtsezkoa da.

Irabazigura hutsa oso bizgarri eskasa da enpresa-jarduerari eragiteko. Are gitxiago bakotxak bere burua gainditzeko nahiari, sormenari eta lana ondo egiteko gogoari berebiziko garrantzia emoten ez badeutsegu.

Horretarako, benetan sortzailea dan mentalidadea, besteei geure burua emoteko gaitasuna ("alterodirectio" nahi badozue) derrigorrezko balore etikoak dira.

Edozein ideologiak, baloreok indartuteko gai bada, ziurtatuta dauko gizarte-aldaketarako gaitasuna. Egile batzuek argi eta garbi itxi dabenez (gure inguruan, ik. Aranzadi) ekonomi arlokoa ez dan talde batek –edo bizgarri kolektiboak, gehienetan nazio-krisialdietan edo politika-, gizarte- edo ekonomia-arloko erronka haundien aurrean– eragin zuzena dauko enpresa eta ekonomi garapenean. Horrela, ekonomiaren

